

ADMINISTRAZIO-AKORDIOA, ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA EUROPAKO ARARTEKOAREN ARTEKOA

Alde batetik, Espainiako Erresumak, eta, bestetik, Europako Arartekoak,

Ikusita:

Europar Batasuneko Gai Orokorretako eta Kanpo Harremanetako Kontseiluaren 2005eko ekainaren 13ko ondorioak, Kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan hizkuntza gehigarriak ofizialki erabiltzeari buruzkoak,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratuaren 21 eta 195 artikulua eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa Eratzeko Tratuaren 107D artikulua,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratuaren 314. artikulua,

Europako Parlamentuak Arartekoaren estatutuei eta haren eginkizun orokorreari buruz hartutako erabakia,

Kontuan hartuz:

(1) Batasuna herritarrengana hurbiltzeko ahaleginen barruan, erraztu behar da, ahal den neurrian, herritarrak eta haien ordezkariak instituzioekin beren ama-hizkuntzan komunikatzea, elementu garrantzitsua baita Batasunaren proiektu politikoarekin duten identifikazioa indartzeko.

(2) Batasunean badira beste hizkuntza batzuk, Kontseiluaren 1/1958 Erregelamenduan adierazitakoez aparte, estatu kide baten Konstituzioan aitortutako estatutua dutenak lurralde osoan edo zati batean, legez hizkuntza nazional bezala erabil daitezkeenak.

ADOSTEN DUTE ADMINISTRAZIO-AKORDIO hau sinatzea, Europako Arartekoaren eta espainiarren edo Espainian bizi diren herritarren arteko komunikazioen esparruan ofizialki erabili ahal izateko 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera hizkuntza ofizialaren estatutua aitortua duten gaztelaniaz besteko hizkuntzak.

Lehenengo artikulua.

Espainiako Zuzenbidea aplikatuz eta Kontseiluaren 2005eko ekainaren 13ko ondorioekin bat etorriz, Espainiako herritarrek edo Espainian bizi den edo egoitza duen beste edozein pertsona fisiko edo juridikok eskubidea izango dute Europako Arartekoari idatzizko komunikazioak bidaltzeko Espainiako ordenamendu konstituzionalaren arabera Espainiako lurraldean hizkuntza ofizialaren estatutua duen edozein hizkuntzatan.

1.1. Erabilitako hizkuntza ez bada gaztelania, aipaturiko eskubidea prozedura honi jarraikiz baliatuko da:

- Herritarrak itzulpenen ardura duen organismo eskudunari (hemendik aurrera «organismo eskuduna») bidaliko dio bere idatzizko komunikazioa. Organismo hori Espainiako estatuak izendatuko du. Organismo eskudunak Europako Arartekoari bidaliko dio komunikazio hori, gaztelaniazko itzulpen ziurtatuarekin batera.
- Komunikazioaren jasotze-data izango da Arartekoak organismo eskudunaren itzulpen ziurtatua jasotzen duen eguna.
- Arartekoak gaztelaniaz idatziko du bere erantzuna, eta organismo eskudunari bidaliko dio, zeina Espainiako gobernuak izendatzen baitu herritarrari itzulpen ziurtatu bat eskaini diezaion komunikazioaren jatorrizko hizkuntzan. Arartekoak horren berri emango dio herritar interesdunari, jatorrizko dokumentuaren hizkuntzan idatzitako gutun eredu baten bidez.
- Organismo eskudunak ahalik eta azkarren bidaliko dio interesdunari Arartekoaren erantzunaren itzulpen ziurtatua, jatorrizko dokumentuaren hizkuntzan, eta Arartekoari jakinaraziko dio zein egunetan helarazi zaion itzulpena herritarrari. Era berean, organismo horrek jasotzen badu herritarrak Arartekoaren komunikazioari emandako erantzuna, Arartekoari jakinaraziko dio.

1.2. Arartekoak jasotzen dituen komunikazioak bidaltzaileari itzuliko dizkio baldin eta Espainiako 1978ko Konstituzioaren arabera estatutua onartua duten gaztelaniaz besteko hizkuntza batzuetan idatzita badaude eta ez badaramate gaztelaniazko itzulpen ziurtaturik.

Kasu horretan, Arartekoak honako hau jakinaraziko dio interesdunari jatorrizko dokumentuaren hizkuntzan idatzitako gutun eredu baten bidez: Arartekoari komunikazioak gaztelaniaz besteko hizkuntza batean bidaltzeko eta erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko duen eskubidea baliatu nahi badu, Espainiako estatuak horretarako izendatua duen organoari bidali behar dizkio.

1.3. Organismo horrek Arartekoari helaraziko dizkio gutun ereduak, Espainiako 1978ko Konstituzioaren arabera estatutua aitortua duten gaztelaniaz besteko hizkuntzetara itzulita, Arartekoak erabili ditzan herritarrekiko korrespondentzian.

1.4. Gaztelaniaz besteko hizkuntza batera itzultzean gertatzen diren atzerapenak edo akatsak, edo akats horiengatik egin daitezkeen interpretazio okerrak, ez dira izango Arartekoaren erantzukizuna, harentzat balio duen bertsio bakarra gaztelaniazkoa izango baita. Hori espresuki jasoko da itzulpenen testuan.

1.5. Espainiako gobernuak izendatutako organismo eskudunaren eta Arartekoaren arteko dokumentuen transmisioa bitarteko elektronikoen bidez egingo da, baita administrazio-akordio honetan aurreikusitako jakinarazpenena ere. Horretarako, helbide elektroniko espezifikoak zehaztuko dira.

Bigarren artikulua.

2.1. Administrazio-akordio hau sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute akordio honetan sartzen diren komunikazioen konfidentziasuna uneoro gordetzeko behar diren neurriak har daitezzen, bereziki Espainiako estatuak izendatutako organo eskudunak egindako itzulpenei dagokienez.

2.2. Azpimarratu behar da Espainiako estatuak izendatutako organismo eskudunak 95/46/EE Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen duten xedapenen arabera jardun behar duela (95/46/EE Zuzentaraua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa).

Hirugarren artikulua.

3.1. Espainiako agintariek Interneten jarriko dituzte herritarrentzako orriak, erreklamazio-formularioen bertsio berriekin, eta Europako herritarrei zuzendutako Europako Arartekoaren beste informazio-dokumentu batzuk, 1978ko Espainiako konstituzioaren arabera estatutua aitortua duten gaztelaniaz besteko hizkuntzetan.

3.2. Europako Arartekoaren gaztelaniazko Interneteko orriak esteka bat eskainiko du Espainiako agintariek sortutako orrialdeetara joateko. Espainiako agintariak izango dira itzulitako dokumentuen eta horien itzulpenaren kalitatearen erantzule bakarrak, eta, beraz, Europako Arartekoari ezin izango zaio inolako erantzukizunik egotzi, eta espresuki aipatu beharko da hori Europako Arartekoaren Interneteko orrian eta Espainiako agintarien erantzukizunpeko Interneteko orrietan.

Azken xedapena

Akordio hau aplikatzen hasiko da Espainiako Gobernuak Arartekoari Akordioan jasotako itzulpenak egiteko Espainiako legeriak izendatutako organismo eskudunak zein diren jakinarazten dion unetik aurrera.

Europako Arartekoa

Espainiak Europar Batasunean duen enbaxadore ordezkari iraunkorra